Aretxabaletako Udala

2024IKIB004

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

KOMENTUKO TABERNA-JATETXE ZERBITZUAREN ZERBITZU EMAKIDA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio teknikoen agiri honen xedea udal titulartasuneko “Komentu” eraikinean taberna-jatetxe zerbitzua ematea da, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz.

Taberna-jantoki zerbitzua ustiatzeak, gainera, taberna-jatetxe osoa garbitzea, irekitzea eta ixtea dakar.

Dokumentu honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea taberna eta jatetxea ustiatzeko, kudeatzeko eta mantentzeko zerbitzua abian jartzea da, eta horretarako, duela gutxi egokitu den komentu zaharraren eraikina eta instalazioak erabiliko dira.

Kontratuaren xedea betetzeko, kontratuan eta agiri honetan ezarritako baldintzak beteko dira. Dokumentu horiek guztiek kontratu-izaera dute.

2.- ESPAZIOAREN KONTZEPTUA ETA DESKRIBAPENA

Aretxabaletako komentuko taberna-jatetxea udal eraikin batean kokatuta dago, beharrezko ekipamenduz hornitua eta Aretxabaletako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailaren mende dago.

Eraikina, Errekabarren kaleko 12. zenbakian dago, non taberna-jatetxea dagoen 143m/karratuko azalerarekin. Solairu nagusian barra, mahai- gela eta terraza bat dauka, eta beheko solairuan sukaldea dago.

Zerbitzua erabat muntatuta eta martxan jartzeko moduan dago (I. eranskinean jasotako inbentarioan zehaztutako elementuekin)

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUA

Esleipendunak, honako zerbitzu hauek eman beharko ditu:

3.1.- Taberna-jatetxe horretan egin beharko du lana, eta jendearentzat irekita eta zerbitzu guztiak emateko moduan eduki beharko du, ondoren zehazten den ordutegian (ordutegi honek gutxieneko derrigorrezko ordutegi izaera du):

Goizeko 09:30etatik gaueko 21:00etara (astelehenetik ostegunera)

Goizeko 09:30etatik gaueko 00:00etara (asteburu, jai bezpera, jai egunak)

Tabernako zerbitzua, printzipioz, urteko egun guztietan emango da. Hala ere, esleipendunak eskubidea izango du urtean 20 egunetan taberna ixteko. Guzti hauetatik, 10 egun abuztuan itxiko ditu; gainontzeko 10ak esleipendunak proposatuko du noiz itxi, beti ere Gizarte Zerbitzuen Batzorde informatzailearen baimena lortu ondoren. Gainera, adostuz gero, Udalak baimendu egingo du astelehen goizetan taberna itxita egotea.

3.2.- Taberna zaintzea, lokalerako sarbidea kontrolatzea eta haren segurtasuna zaintzea. Taberna-jatetxeko eraikina irekitzeaz eta ixteaz arduratu beharko du, eta bertara sartzeko giltzen gordailuzaina izango da, baita haien erabileraren erantzule ere.

3.3.- Esleipenduna arduratuko da taberna- eta jatetxe-zerbitzuarekin lotura zuzena duten espazio, instalazio eta gainerako osagarri guztiak (baxera, beirategia, paperontziak, leihoak, eta abar) garbitzeaz eta egoera higieniko-sanitario ezin hobean mantentzeaz, eta, bereziki, komunak (goizeko 9: 30etik gaueko

21:00etara egongo dira jendearen eskura) garbitzeaz, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoa eta dagozkion osasun-gomendioak betez. Instalazioak jendearen arretarako ordutegitik kanpo garbituko dira.

3.4.-Taberna-jatetxearen barruan ordena eta bizikidetza egokia zaintzea, lokalaren eta altzarien egoera eta instalazioen funtzionamendua kontrolatzea, eta kontratuaren arduradunari edozein ezohiko gai edo gertakari jakinaraztea. Halaber, bere zaintzapean geratzen diren altzariak eta instalazioak ez hondatzea; tabernako altzariak eta makinak (mahaiak, aulkiak, gortinak, makinak...) mantentzeko eta konpontzeko gastuak ordaintzea.

3.5.- Ematen diren edariak, janaria eta gainerakoak baldintza egokietan eskaini beharko dira, haiek kontsumitzeko, eta, kasu bakoitzean, haien elaborazioa, erakusketa eta salmenta arautzen dituzten arauen arabera.

3.6.- Zerbitzua antolatu beharko da une oro erabiltzaileen eskaerei azkar eta arretaz erantzuteko moduan, eta, horretarako, behar diren neurri guztiak hartu beharko ditu. Esleipendunak arauzko baldintzak betetzen dituen pertsona orori utzi beharko dio zerbitzua erabiltzen.

3.7.- Ustiapenaren xede den lokala eta instalazioak behar bezala eta kontserbazio-egoera onean mantentzea. Horretarako beharrezkoak diren konponketa guztiak bere kargura izango dira, betiere matxurak edo hondatzeak jardueraren funtzionamendu normalaren ondorio badira. Esleipendunak udal zerbitzu teknikoei jakinarazi beharko die, idatziz, instalazioetan gertatzen den edozein irregulartasunen berri, eta, oro har, higiezinaren narriadura eragiten duen edozein irregulartasunen berri ere eman beharko die. Horrek ustiaketa itzuli behar izatea eragin dezake, baldin eta, gertatutako anomalia motaren arabera, esleipendunaren erantzukizuna egiaztatuta geratzen bada. Instalazioen erabiltzaileekiko tratu adeitsua eta errespetuzkoa izan beharko du. Kontratua indarrean dagoen bitartean hondatzen diren tabernako zerbitzuko materialak eta tresnak birjartzea eta konpontzea, bai eta lokalak, taberna-aretoko instalazioak eta komunak garbitzeko behar diren garbiketa-tresna eta -produktuengatiko gastuei aurre egitea ere (komuneko papera eta gainerako produktu kontsumigarriak barne).

3.8.- Kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak behar bezalako arretaz eman beharko du zerbitzua, Udalak horri buruz ematen dituen arauen arabera, eta osasunaren, lanaren, gizarte-segurantzaren, laneko segurtasun eta osasunaren eta kontsumitzaileak babestearen arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du.

3.9.- Irratien edo antzeko tresnen erabilera mailakatu egin beharko da, hiritartasun-arauen barruan, erabiltzaileen eta, oro har, jendearen erosotasunagatik, betiere indarrean dagoen legerian ezarritako mugak errespetatuz. Berariaz debekatuta dago lokaletik kanpo (terrazan) jartzen den musikak erregelamendu bidez onar daitekeen zarata-maila gainditzea.

3.10.- Esleipendunaren kontura izango dira tabernako prentsa, aldizkariak, telebista, kanal pribatuak eta antzekoak, Interneteko zerbitzuak, eta abar.

3.11.- Esleipendunak ekintza kulturalak proposatu eta sustatu ahal izango ditu, beti ere Gizarte Zerbitzuen Batzorde informatzailearen baimena lortu ondoren.

3.12.- Ezin izango du inolako kartel, makina edo iragarki komertzial edo politikorik jarri, ez eta obrarik egin ere Udalaren berariazko baimenik gabe.

3.13.- Jatetxe zerbitzua eskainiko da, eta goizeko lehen orduan jarriko da jendaurrean nola menua hala prezioa. Gosariak, eguneroko menua eta askariak eskaini beharko dira, baita ogitartekoak, errazioak eta plater konbinatuak ere bazkari eta afari orduetan. Zerbitzua elikadura askotarikoa, orekatua eta zerbitzuaren erabiltzaileen nutrizio-premietara egokitua izan beharko da.

3.14.- Era berean, konpromisoa hartzen du Udalak, Autonomia Sustatzeko Espazio-Zerbitzuak eta “Basotxo” Jubilatu elkarteak eskatutako zerbitzu bereziak emateko (karta txapelketak, luntxak, meriendak eta abar…).

4.- ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Udalaren eskumena izango da zerbitzuaren ordutegia ezarri eta aldatzea.

Erreferentziazko gutxieneko ordutegia 9:30etik 21:00etara izango da astelehenetik ostegunera eta goizeko 09:30etatik gaueko 00:00etara (asteburu, jai bezpera, jai egunetan)

Tabernako zerbitzua, printzipioz, urteko egun guztietan emango da. Hala ere, esleipendunak eskubidea izango du urtean 20 egunetan taberna ixteko. Horietatik guztietatik, 10 egun abuztuan itxiko ditu; gainontzeko 10ak esleipendunak proposatuko du noiz itxi, beti ere Gizarte Zerbitzuen Batzorde informatzailearen baimena lortu ondoren. Gainera, adostuz gero, Udalak baimendu egingo du astelehen goizetan taberna itxita egotea.

Esleipendunak urtero aurkeztuko dio egutegi proposamena Udalari, urtarrilaren 30a baino lehen, Udalak ontzat eman dezan.

Onartutako egutegian eta ordutegian edozein aldaketa egiteko, Udalarekin adostu beharko du eta Udalaren berariazko baimena beharko du.

5.- TABERNAKO PRODUKTUEN PREZIOA

Tabernan eskainitako produktu eta zerbitzuen publikoarentzako salmenta-prezioak esleipendunak libreki ezarriak izango dira. Hala ere, taberna-jatetxean eskainitako produktuak ekonomikoki eskuragarriak izango dira.

Edonola ere, 65 urtetik gorakoei deskontua egin beharko dio esleipendunak prezioen zerrendan adierazita agertzen diren produktuetan(Kafe eta infusioak, ardo-muztioak, garagardoa eta freskagarriak). Deskontu hau urtero udalak onartuko du Osoko Bilkuran. Kontsumizioen prezioak ez dira, inola ere, Udal Gizarte Zerbitzuak onartutakoak baino handiagoak izango.

Udalak ezarritako prezioak urtero eguneratu ahal izango dira, esleipendunak Udalari proposatuta eta honek ontzat emanda.

Prezioak jendaurrean erakutsi beharko dira, ageriko lekuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan.

6.- UDALAK ESLEPENDUNAREN ESKU JARTZEN DITUEN BALIABIDEAK

Aretxabaletako Udalak, esleipen hau hasten den unean, guztiz instalatuta ditu zerbitzuaren oinarrizko funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnak; tresna txiki eta produktu suntsigarriak izan ezik, I. eranskinean ageri den inbentarioan jasotakoaren arabera. Hala ere, adjudikaziodunak, bere kontura, egokitzat jotzen dituen osagaiak jarri ahal izango ditu zerbitzurako, baldin eta horren ondorioz, instalazioetan obrarik edo aldaketarik egin behar ez bada, eta aldez aurretik Udalak horretarako baimena ematen badu.

Kontratua formalizatu aurretik esleipendunaren esku jarriko da I. eranskinean jasotako inbentarioa, esleipendunarekin egiaztatu eta alderatuko dena.

Zerbitzuaren alde egindako hobekuntza, konponketa eta jarritako elementu higiezin guztiak, kontratua amaitzean, Udalari emango zaizkio; aitzitik, kontratua amaitzean, esleipendunak zerbitzuaren eskura jarri dituen ondasun higigarriak jaso ahal izango ditu.

Kontsumitutako gasa eta argindarra esleipendunak ordainduko ditu.Ur kontsumoa eta zabor-tasak Udalak bere gain hartuko ditu.

7.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

Esleipendunaren eskubideak izango dira:

7.1.- Esleipendunak eskubidea izango du taberna-jatetxea erabiltzeko eta ustiatzeko, jarduera egiteko behar diren ahalmen guztiekin. Ondorioz, esleipenduna baimenduta dago jarduera horri dagozkion edariak eta janaria sartzeko, horri buruzko lege araudiarekin bat etorriz, eta kontratuan aurreikusitako moduan gauzatuko du jarduera.

Taberna-jatetxeko lokalak (jantokia, sukaldea, biltegiak, komunak,…) eta kanpoko terraza bakarrik erabili ahal izango ditu, eta ezin izango du beste eremu publikorik erabili edo okupatu, Aretxabaletako Udalaren idatzizko baimenik gabe. Aparteko jardueraren bat antolatu ahal izateko, Aretxabaletako Udalaren baimena beharko du, eta horretarako eskaera aurkeztu beharko da gutxienez 15 egun lehenago.

Horren aurrean, Aretxabaletako Udalak uste badu jarduera hori desegokia dela, ezezko erantzuna eman ahal izango du, esleipendunak kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

7.2.-Jatetxeko tabernan salgai dagoen artikulu bakoitzeko ezartzen diren tarifen ordainketa jendearen eskutik jasotzea.

7.3.- Udalaren konpentsazio ekonomikoa lortzea, ustiapena kentzearen ondorioz esleipendunari eragindako kalte eta galerengatik. Esleipendunari dagokio argudiatzen dituen kalte-galeren zehaztapena eta kuantifikazioa frogatzea, nahiz eta horiek interes publikoak eragin eta emakidadunari egotzi ezin zaizkion. Kalte eta galera horiek zehatzak eta egungoak izan behar dute.

7.4.- Esleipendunak ekarpen ekonomiko bat jasoko du Udalaren aldetik, 65 urtetik gorako erabiltzaileei egindako deskontuaren konpentsazio gisa. Ekarpen horren zenbatekoa, lehen urtean, 13.239,27€ koa izango da.

8.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

8.1.- Kontratuaren xede den zerbitzua ematea, eta, horretarako, zerbitzua martxan jartzea ZAZPI EGUNEKO epean, kontratuaren indarraldia hasten denetik zenbatzen hasita.

8.2.- Esleipendunak ustiatuko du taberna-jatetxearen zerbitzua, eta bere kontura izango dira zerbitzuaren funtzionamendu egokirako behar duren kontratazio, kudeaketa eta lan guztiak. Ezin izango zaio hirugarrenei utzi, errentan eman edo eskualdatu, eta esleipendunak udalari baino ez dio erantzungo.

8.3.- Titularra ordezteko baimena eman ahal izango da atseden-egunetan eta oporraldietan soilik, eta behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaio Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Batzordeari. Gaixotasunak, istripuak, baimenak eta abar direla medio, langileren bat bajan badago, esleipendunak ordezkoak izendatu El abeharko ditu, horrela, zerbitzua zuzen eta kontratuan ezarritakoaren arabera eskaintzen jarraitzeko, eta hartutako betebehar guztiak bete ahal izateko. Egin beharreko ordezkapenak jakinaraziko zaizkio Udalari. Esleipendunak administrazioari eman beharko dio kontratatuta dituen langileen informazioa.

8.4.-Lan-talde nahikoa izatea, sukaldean zein mahai zerbitzuan eta barran zerbitzu egokia bermatzeko. Esleipendunaren betebeharra izango da unean indarrean dauden hitzarmen kolektiboen bitartez finkatutako laneko obligazio eta eskubideak bermatzea langileei, eta lana eta gizarte segurantza babesten duten legeak xedatutakoa bete beharko da bere alderdi guztietan.

8.5.- Esleipendunak eta haren menpeko guztiek elikagai erabiltzailearen arauzko txartela izan beharko dute eta eguneratuta izan (Carnet de Manipulador de Alimentos). Funtzionamendurako Osasun Baimena (ASF) izan beharko dute eta elikadura-higieneari buruzko arau guztiak bete beharko dituzte.

8.6- Xedapen ofizialek ostalaritza establezimenduetarako eskatzen dituzten betekizun guztiak betetzeaz gain, esleipendunak erreklamazio-liburu bat izango du erabiltzaileen eskura, Udalak ikus-onetsia, eta berehala eman beharko dio eskatzen duen orori. Liburu hori badela iragartzen duen kartel bat jarriko du, ikusteko moduan, eta, horrez gain, nahitaezko erreklamazio-orriak jarriko ditu, bai eta jasotako erreklamazioen erregistroa ere. Erreklamazio bat jaso bezain laster, Aretxabaletako Udaleko kontratuaren arduradunari jakinaraziko zaio.

8.7.- Esleipendunak bere gain hartzen ditu kontratuaren garapenak izan ditzakeen arriskuak, lortu nahi dituen onura ekonomikoan eragina dutenak.

8.8.- **Hizkuntza-betebeharrak:**

a) **Hizkuntza ofizialen erabilera herritarrekin**: ahozko harremanak euskaraz izan daitezen lehenetsiko da; horretarako, enpresako langileek euskaraz hasiko dute konbertsazioa, eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute.
   Edonola ere, herritarrekiko zerbitzua euskaraz emateko gaitasunik ez duen langilerik balego, enpresa esleipendunaren ardura izango da langile horiei formakuntza ematea urtebeteko epean gehienez ere gai izan daitezen agurrak, prezioak, jan/edarien izenak, menuak eta lanari lotutako gutxieneko komunikazio esamoldeak euskaraz esateko eta ulertzeko.
   Udalak betebehar honen jarraipena egingo du.
b) **Hizkuntza-paisaia**: errotuluak, oharrak, prezioen zerrendak, menuak eta gainerako komunikazio orokorrak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez.

8.9.- Zerbitzua ematen duten pertsona guztiak txukun eta behar bezala jantzita egongo dira. Esleipendunak langileak lanean ondo daudela zainduko du, zerbitzuko langile gisa identifikatu ahal izateko beharrezko jantziak emango dizkio, eta zerbitzuaren erabiltzaileak behar bezala tratatzeaz arduratuko da.

8.10.- Legedia betetzea:

- ✓ Kontuan eduki beharko du 1/2016 legea, apirilaren 7koa Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, eta lege horrek dioen bezala, 18 urtetik beherakoei ezin izango zaie alkoholdun edaririk saldu, ez eta eskueran jarri ere. Erabat debekatuta dago tabakoa saltzea, bai zuzenean, bai zeharka.
- ✓ Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, eta dagozkion zerga eta tasak ordaintzea. Era berean, egunean egon beharko du Gizarte Segurantzarekiko eta Laneko Segurtasun eta Higienearekiko betebeharretan, bai esleipendunari dagokionez, bai berarentzat lan egiten duten langileei dagokienez.
- ✓ Esleipendunak kontratuaren xedeari dagozkion funtzioak betetzeko langileak kontratatu ahal izango ditu. Langileek, zerbitzua eskaintzen duten bitartean, uneoro eta kasu guztietan, lan arloko araudia bete beharko dute, eta Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharko dira.
- ✓ Kontsumitutako edo emandako zerbitzu bakoitzeko faktura edo tiketa egitea, kontsumitzaileak babesteko legearen arabera.
- ✓ Esleipendunaren betebeharra izango da indarrean dagoen legeria betetzea, eta, bereziki, udalerrian indarrean dauden ordenantzak betetzea.

8.11.- Esleipendunak baldintza agiri hauetan jasotako zehaztapenez gain, Udalak taberna – jatetxe jardueraren funtzionamendurako ezarritako arau orokorrak bete beharko ditu.

8.12.- Esleipendunaren kontura izango dira jardueraren ondoriozko kostu energetikoak: gas-hornidura eta hornidura elektrikoa. Ildo horretan, kontuan izan beharko da argiztapen-sistemaz eta sukaldeko ekipamenduaz gain, lokalean berokuntza-sistema bat eta aireztapen-sistema bat daudela.

8.13.- Esleipendunak bere gain hartuko ditu honako gastu hauek: langileak, telefonoa, garbiketa- eta kontserbazio-produktuak, eta egiturazko akatsei egotzi ezin zaizkien konponketak, zein agente atmosferiko ezohikoek edo hondamendiek eragindako narriadurak.

8.14.- Zerbitzua ematen den bitartean hondatutako tresneria (baxera, etxetresna elektriko txikiak,…) konpontzeko eta ordezteko gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

8.15.- Udalak beti onartu beharko ditu hobetzeko eta mantentzeko obrak. Instalazioetan edozein anomalia edo matxura gertatuz gero, udal-zerbitzu teknikoei jakinarazi beharko zaie.

8.16.- Tabernako leiho guztietako kristalak, kanpotik eta barrutik, garbitzea ere esleipendunari dagokio.

8.17.- Esleipendunak hilero udalari kanonaren zenbatekoa ordainduko dio.

8.18.- Kontratuak indarrean dirauen bitartean Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko ditu kontratatutako polizen kopiak eta ordaindutako ordainagirien egiaztagiriak.

8.19.- Kontabilitate-emaitzak, gorabeherak, egindako kudeaketa, hobekuntza-proposamenak eta abar biltzen dituen urteko memoria aurkeztu beharko da.

8.20. Lokalaren edukiera uneoro errespetatu beharko da, hau da, 105 pertsona gehienez.

8.21 Lokala ezin izango da erabili baimendutakoa ez den beste erabilera baterako

9- ARETXABALETAKO UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

9.1.- Udalak du kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko eskumena.
9.2.- Udalak beretzat gordetzen du emakida iraungi baino lehen erreskatatzeko eskubidea, interes publikoko inguruabarrak justifikatuz gero, dagozkion legezko ondorioekin.

9.3.- Zerbitzua behar bezala ematen dela ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak ere beretzat gordetzen ditu, eta edozein unetan erabili ahal izango ditu. Halaber, beharrezkotzat jotzen duen aldizkakotasunarekin, lokala eta komunak garbi dauden ikuskatuko du. Egindako ikuskapenen ondoren, beharrezkoa bada, beharrezko aginduak emango ditu garbiketa, konponketa edo mantentze-lanak egiteko, higiene- eta kontserbazio-egoera egokia bermatzeko.

9.4.- Udalak ez du bere gain hartuko esleipendunak bere hornitzaileei ez ordaintzearen erantzukizuna, ezta instalazioetan izan daitezkeen narriadura edo lapurretena ere.

9.5.- Iturgintza, pintura eta elektrizitateari buruzko lokalaren aparteko mantentze-lanen gastuak zein eraikinaren egiturari eragiten dioten aparteko konponketa lanen gastuak Udalaren kontura izango dira (apartekotzat hartuko dira 1.000 eurotik gorakoak). Konpondu ezin diren altzari, makina eta abarren ordezkapena Udalaren kontura izango da, betiere, dolu, erru, zabarkeria edo erabilera akastunagatik ez badira hondatu.

9.6.- Instalazioak zaindu eta mantentzea, kontratuak irauten duen bitartean, esleipendunaren kontura izango dira, eta bere kontura egingo ditu zerbitzuaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren konponketak eta mantentze-lanak, horien irismena edo kausa edozein izanik ere.

Galdararen mantentze-lanak eta suteetatik babesteko sistemen mantentze-lanak udalaren kontura izango dira.

9.7.- Hiru hilean behin (hiruhileko bakoitzeko lehen astean), bilera bat egingo dute esleipendunaren kontratuaren arduradunak eta Aretxabaletako Udalaren kontratuaren arduradunak, zerbitzuaren prestazioa ebaluatzeko eta bidezkoak diren iradokizunak egiteko. Bilera egiteko eguna eta ordua udal-ordezkariak jakinaraziko die parte hartzen duten alderdiei. Bilera bakoitzaren akta egingo da, eta bertaratutako kide bakoitzak berretsi eta sinatu beharko du.

9.8.- Udalak ez du inolako erantzukizun penalik, zibilik edo beste edozein motatako erantzukizunik izango, esleipendunak ez badie hornitzaileei ordaintzen, hornitutako kontsumo-produktuen ondorioz intoxikazioak gertatzen badira edota beste edozein arrazoi dela medio.

9.9.- Udalak ez du zuzenbide, lan edo beste edozein alorretako harremanik edukiko esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ezta hori amaitzean ere, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratu hau dela eta sor litezkeen obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

9.10.- Kontratua amaitu aurreko hilabeteko epean, akta egingo da, eta kontratuaren arduradunak eta esleipendunak sinatuko dute. Akta horretan, jasota utziko da instalazioak eta, hala badagokio, Administrazioari itzuli beharreko ondasunak egoera onean kontserbatu direla. Konponketak eta birjarpenak egin behar direla adierazten bada, esleipendunak bere kontura egin beharko ditu, eta, egin ezean, Aretxabaletako Udalak egingo ditu, kontratistaren kontura, eta behin betiko bermea murriztu egingo du konponketok jaso duten zenbatekoan.

A la finalización del contrato todo el material quedará incluido en el inventario de titularidad municipal, por lo que el material inventariado (el inicial y el adquirido a cuenta del Ayuntamiento) deberá quedar a disposición del Ayuntamiento.

Egiaztapen akta bat sinatuko da kontratua amaitu eta 15 egunera, behin betiko bermea itzuli aurretik.

10.- KANONA, ARAUBIDE EKONOMIKOA

Urtean 4.000 euroko(BEZ kanpo) gutxieneko kanon bat ezarriko da. Lizitatzaileak kopuru hori hobetu ahal izango du proposamen ekonomikoan.

Aipatutako kanona hamabi hilabeteetan banatuko da, eta hil bakoitzeko lehenengo bost egunen barruan ordainduko da.

Emakida denez, balio erantsiaren gaineko zergari kargarik ez duen eragiketa bat da, BEZari buruzko 102/1992 Foru Dekretuaren 7.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esleipendunaren kontura izango dira: garbiketa-gastuak, komuneko paperaren eta esku-xaboiaren gastuak, elektrizitate- eta gas-gastuak, telefono-gastuak, bide digitalerako eta jabetza intelektualerako konexioaren gastua, - ikus-entzunezko lanak erreproduzitzeagatik eta/edo emititzeagatik ordaindu beharreko eskubideen gastuak, etab.

11.- ERANTZUKIZUN ZIBILA

Esleipenduna izango da agiri honen xede diren obrak gaizki egiteagatik sor daitezkeen istripu, kalte eta galeren erantzulea, baldin eta hirugarrenei egotzi ezin bazaizkie.

Horretarako, erantzukizun zibileko dagokion aseguru-poliza sinatu duela egiaztatu beharko du, sinatutako poliza aurkeztuz, 700.000 euroko gutxieneko berme-mugarekin eta hura ordaindu izanaren frogagiriarekin. Poliza horrek kontratuari datxezkion arriskuak estaliko ditu, eta, bereziki, hirugarrenei eragindako kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila, esleipendunen, haien enplegatu eta mendeko iraunkorren edo noizbehinkako langileen, erabiltzen dituen makina eta ekipoen ekintzetatik eratorritakoak, bai eta ugazaben erantzukizuna eta tokiko erantzukizun zibila estaltzeko klausulak ere.

Esleipendunak kontratua egin eta indarrean jarraituko du prestazio- eta berme-aldian. Ez badago, poliza kontratatzeko konpromisoaren bidez egiaztatuko da, lizitazio honen esleipendun izanez gero.

12.- LARRIALDIETARAKO ETA AUTOBABESERAKO PLANA

Enpresak Udalarekin lankidetzan jardungo du Larrialdi eta Autobabes Planei lotuta zehazten diren jarduera guztietan, simulazioak, ebakuazioak, hondamendiak eta abar barne.

Enpresak lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta Laneko osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du.

13.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Enpresa adjudikaziodunak hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan (barne zein kanpo erabilerakoak izan). Emakumeen aurkako bereizkeria iradokitzen duten edo estereotipo sexisten erreprodukzioa bultzatzen dituzten irudi eta mezuak ekidin beharko dira.

Berdintasunaren aldeko mezuak eta irudiak sustatuko dira, momentu oro presentzia orekatua eta erantzunkidetasuna bermatuz. Era berean, genero identitate eta sexu orientazio aniztasuna, kultura aniztasuna eta adin aniztasuna sustatu beharko dira, besteak beste.

Enpresa edo entitate adjudikaziodunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla.

Era berean, 50 langiletik gorako enpresek berdintasun plan bat badutela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraiki.

Aretxabaletako
Udala

1. ERANSKINA

ALTZARIEN, MAKINARIAREN ETA OSTALARITZA TRESNEN INBENTARIOAREN AKTA 2025. URTEA

TRESNA/ALTZARI/ETXETRESNA ELEKTRIKOA	KOPURUA
SUKALDEA	
EUSKARRI HERDOILGAITZEKO MAHAIA. 18/10 AISI 304	1
EUSKARRI HERDOILGAITZEKO MAHAIA ESKUAK GARBITZEKOAREKIN	1
FIANBREAK MOZTEKO MAKINA-300	1
HOZTE-MAHAIA EMEP-180	1
EUSKARRI HERDOILGAITZEKO MAHAIA ANGULOAN	1
LABE MISTOA AE-061	1
LABEAREN EUSKARRIA SH-11	1
FRIGIGAILUARENTZAKO EUSKARRI HERDOILGAITZEKO MAHAIA	1
FRIGIGAILUA FE-8	2
FRY-TOP FT-6710 KORE	1
ALTZARI TXIKIA MB 710 KORE	2
ATE- KITa KORE	2 + 3
ELEMENTU NEUTROA EN-705	1
SUKALDEA G740	1
HORMAKO KANPAI ERAUZLE KONPENTSATUA	1
ARGIZTAPEN INTEGRATUALUMINAIA DE LED 1500	2
ERAUZTEKO TALDEA 400º/2H	1
KANPAIA AUTOMATIKOKI ITZALTZEKO SISTEMA	1
MAHAI EUSLEA ANGELUN, ESKU-GARBILEKUAREKIN	1
HOZTE-ARMAIRUA 701	1
IZOZTE-ARMAIRUA	1
ONTZI-GARBIGAILUA CO-501	1
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO HARRASKAKO ALTZARIA	1
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO ERDIKO MAHAIA	1
MAHAI BEROA 120	1

HOZTE-PANELEN GANBERA	1
POLIETILENOZKO APALATEGIA + ALUMINIOA GANBERETARAKO	1
SPLIT HOZKAILUA MDB107EA11XX	1
KONDENTSAZIO-UNITATEAREN URRUTIKO INSTALAZIOA	1
HOMRE-ALARA ITXIA BATERIARIK GABE	1
OFFICE	
MIKROHONDEN LABERAKO MAHAI EUSKARRIA	1
MIKROHONDEN LABEA	1
EDARIETARAKO HOZKAILU-ERAKUSTOKIA	1
IZOZKAILU BERTIKALA	1
POSTREETARAKO HOZKAILU-ERAKUSTOKIA	1
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO ALTZARI OSAGARRIA.	1
ONTZI-GARBIGAILUA	1
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO HARRASKAKO ALTZARIA	1
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO MAHAI OSAGARRIA.	2
ALTZARI KONTRAMOSTRATZAILE KAFEGILEA	1
KAFE ERROTA	1
KAFEGILEA F3	1
IZOTZ-FABRIKATZAILEA	1
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO ALTZARI KONTRAMOSTRATZAILEA.	1
ZUKUGAILUA	1
TXIGORGAILUA	1
BOTILATEGIA	2
ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO MOSTRADOREAREN BARRUALDEA	1
BI MAILAKO ESKAILERA	1
EDALONTZI-GARBIGAILUA	1
TABERNA JATETXEA	
MAHAI KARRATUA 800X800	2
MAHAI ANGELUZUZENA 1600X800	4
MAHAI ANGELUZUZENA 220X1000	2

AULKI PILAGARRIA (515X320X785)	32
TABURETEA(530X520X760)	13
SUKALDERAKO TRESNAK	
SUKALDERAKO BURRUNTZALIAK	3
ZERBITZEKO BURRUNTZALIAK	6
GURAIZEAK	2
IRAGAZKIA	
IREKIGAILUAK	2
ELTZE BAXUA 36ZB	1
ELTZE ALTUA 36CM	1
PRESIO-ELTZEA 15l	1
PAELLA ONTZIA 36ZM	2
BURRUNTZALI ZUZEN BAXUA 18 CM	2
BURRUNTZALI ZUZEN ALTUA18 CM	2
ZARTAGINAK 18 ZM	2
ZARTAGINAK 24 ZM	2
ZARTAGINAK 28 ZM	2
ZARTAGINAK 36 ZM	1
ZARTAGINAK 40 ZM	1
HEDEGILE HERDOILGAITZA 50X40	1
HEDEGILE HERDOILGAITZA 60X45	1
PASAPURE HERDOILGAITZA 30ZM	1
IRAGAZKI BOLA ERDIKOA	1
IRAGAZKI “TXINOA”	1
BATIDORA 35ZM	1
JANARIA ZERBITZATZEKO KOILARAK	3
NAYLON-ezko PINTZAK	4
2 l KUBETAK	2
8L KUBETAK	2
PIREX ONTZIAK 40X27	1
PIREX ONTZIAK 35X23	1
KAXA HERMETIKOA 6L	6

GATZONTZIA	2
ZUREZKO KOILARAK	2
ZUREZKO SARDAXKA	2
ZUREZKO ESPATULA	2
PALETA LAUKIA	2
ZOPA-ONTZIA	6
ESPATULA HANDIA	2
ESPATULA HIRUKIA	2
ZERBITZATZEKO ESPATULA	2
GUDIN-ONTZIAK	24
SUKALDERAKO LABANA 23ZM	2
SUKALDERAKO LABANA “FILETEAR” 18ZM	1
SUKALDERAKO LABANA 20ZM	2
SUKALDERAKO LABANA “PUNTILLA”	1
SUKALDERAKO LABANA “CEBOLLERO”	2
IMANA	1
ZORROTZAILE PROFESIONALA	1
SUKALDERAKO AIZKORA 16ZM	1
SUKALDERAKO TAULAK POLIETILENO	2
TABERNA	
ARDO KOPAK	48
EDALONTZI ARRUNTAK	60
GARAGARDO EDALONTZIAK	60
LIKORE KOPAK	6
TXANPAN KOPAK	12
TXUPITO EDALONTZIAK	24
KOPA-KONBINADO	12
UR PITXERRAK	10
KAFE TAZAK eta PLATERAK	60
KAFESNE-TAZAK eta PLATERAK	36
ESNE ONTZIAK	4
INFUSIO PITXARRAK	10

KAFE KOILARAK	36
POSTRE KOILARAK	60
LUNTX SARDASKAK	48
KOILARAK	60
SARDASKAK	60
KUTXILOAK	60
POSTRERAKO KUTXILOAK	48
OKELA KUTXILOAK	48
PLATER ZAKONAK	60
PLATER ATALAK	60
POSTRE PLATERAK	60
BOL-AK	12
PLATER KONBINATU PLATERAK	18
ENTSALADA PLATERAK	18
IZOTZ-ONTZIAK/ KUBITERAK	3
SAKAKORTXOAK	2
SERVILLETERO MINISERVIS	6
ESKU-ZAPIAK	12
ZERBITZARI BANDEXA	2
OGI-ONTZIAK	10

Aretxabaletako Udala

CONCESIÓN DE SERVICIOS DEL SERVICIO DE BAR-RESTAURANTE DEL CONVENTO

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de este pliego de prescripciones técnicas es la prestación del servicio de bar-restaurante en el edificio "Convento" de titularidad municipal, garantizando los derechos lingüísticos de los ciudadanos.

La explotación del servicio de bar-comedor comporta además la limpieza, apertura y clausura de la totalidad del bar-restaurante.

El objeto del contrato que se realizará en base a este documento es la puesta en marcha de un servicio de explotación, gestión y mantenimiento del bar, y restaurante y para ello se hará uso del edificio e instalaciones del antiguo convento, recientemente acondicionado.

Para el cumplimiento del objeto del contrato se seguirán las condiciones establecidas en el contrato y en este pliego. Todos estos documentos tienen carácter contractual.

2.- CONCEPTO Y DESCRIPCIÓN DEL ESPACIO

El bar-restaurante del convento de Aretxabaleta está ubicado en un edificio municipal, dotado de los equipamientos necesario y dependiente del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Aretxabaleta.

Edificio situado en la calle Errekabarren nº 12, con un bar-restaurante con una superficie de 143 m/m2. Consta de barra, salón con mesas y terraza en la planta principal y cocina en la planta baja.

El servicio está totalmente montado y en condiciones de puesta en marcha (con los elementos inventariados en el Anexo I)

3.- SERVICIO A PRESTAR

El adjudicatario deberá prestar los siguientes servicios:

3.1.- Deberá desarrollar su trabajo en el citado Bar-Restaurante, el cual deberá permanecer abierto al público y en condiciones de prestar todos los servicios que requiera el mismo, durante el horario que a continuación se indica y que tiene el carácter de horario mínimo obligatorio:

De 9:30 de la mañana a 21:00 de la noche (De lunes a jueves)

De 9:30 de la mañana a 00:00 de la noche (Fin de semana, vísperas y festivos)

El servicio de bar se prestará, en principio, todos los días del año. No obstante, el adjudicatario tendrá derecho a cerrar el bar durante 20 días al año. De ellos, se cerrarán 10 días en el mes de agosto; los 10 restantes serán propuestos por el adjudicatario, previo consentimiento de la Comisión Informativa de Servicios Sociales. Además, de acordarse, el Ayuntamiento autorizará que el bar permanezca cerrado los lunes por la mañana.

3.2.- Vigilar el bar, controlar el acceso al local y velar por su seguridad. Deberá encargarse de la apertura y cierre del edificio del bar-restaurante, siendo el depositario de las llaves de acceso al mismo y responsable de su uso.

